

Hamalau ikasle etorri dira Erasmus programan 2009-2010 ikasturterako

2009/09/08

Hamalau ikasle etorri dira aurten, Erasmus programaren hirugarren aldian, **iaz baino bederatzi gehiago**. Horietatik, hamar ikaslek Irakasle ikasketak egingo dituzte, eta lauk Ikus-entzunezko komunikazioa. Hauek dira:

- **Morten Mortensen**. VIA University College, Silkeborg, Danimarka. Irakasletza.
- **Corine Jansen**. Rotterdam University College, Herbehereak. Irakasletza.
- **Dexter Hauwert**. The Hague University, Herbehereak. Irakasletza.
- **Nathalie Van der Most**. The Hague University, Herbehereak. Irakasletza.
- **Tiina Karvonen**. University of Oulu, Finlandia. Irakasletza.
- **Feryal Gadaan**. Linkoping University, Suedia. Irakasletza.
- **Evelien Schroyen**. KHLim University College, Belgika. Irakasletza.
- **Valérie Desautez**. KHLim University College, Belgika. Irakasletza.
- **Sanne Vanmechelen**. KHLim University College, Belgika. Irakasletza.
- **Jorge Andreo-Juez**. KHLim University College, Belgika. Irakasletza.
- **Nike Reynders**. XIOS University College, Belgika. Komunikazioa.
- **Sanne Jehoul**. XIOS University College, Belgika. Komunikazioa.
- **Koen Louage**. XIOS University College, Belgika. Komunikazioa.
- **Michael Peters**. XIOS University College, Belgika. Komunikazioa.

Irailaren 7an, astelehena, **harrera egin zitzaien** HUHEZI fakultatean. Goizean azaldu zitzaizkien beren ikastaldiaren nondik norakoak, erakutsi zitzaien fakultatea, eman zitzaien nortasun elektronikoa posta-eta erabiltzeko, eta azaldu zitzaien praktikak zelakoak izango dituzten.

Irailaren 9an bidaia bat antolatuko zaie, bisita ditzaten Leintz bailarako zenbait leku erakargarri: Udala, Garagartza, Barajuen, Urkulu eta Apotzaga.

Ikasle hauek **Gabonak arte** izango dira HUHEZIn. Aldi horretan, zenbaitetan gure ikasleekin batera ikasiko dute, eta beste batzuetan, programa berezia izango dute. **Praktikak**, berriz, batzuek bailarako ikastetxeetan egingo dituzte, eta besteek, komunikaziokoek, EITBn, Bilbon.

